

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Behin betiko onestea 2021eko ordenantzen aldaketa

Udal honek, 2021eko otsailaren 25eko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion hainbat udal ordenantza aldatzeko espedienteari, eta hura jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aldaketen testu osoa argitaratzen da, indarrean sar dadin.

Agurain, 2021eko apirilaren 22a

*Alkatea*

*ERNESTO SAINZ LANCHARES*

#### ETXEAK EDATEKO UREZ HORNITZEAGATIK ETA ESTOLDERIA ZERBITZUAGATIK KOB RATU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

#### II. ERANSKINA

2/ 2021eko aparteko hobaria, COVID-19ren eragina arintzeko eta Aguraingo tokiko ekonomia sustatzeko.

Hobariaren zenbatekoa: Uraren eta estolderiaren tasaren kuotaren gutxieneko tartearen kuotaren ehuneko 70.

Hobaria aplikatzeko aldia: 2021eko ekitaldia.

Pertsona eta erakunde onuradunak:

\* COVID-19tik eratorritako osasun alarmako egoeraren ondorioz honako egoera hauetakoren baten eraginpean egon diren edo 2021eko ekitaldian egongo diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, mikroenpresak eta enpresa txikiak:

\* Jarduera etetea.

\* Mugikortasun murrizketak.

Pertsona taldeek espazio publikoetan eta pribatuetan egoteko mugak.

Egoera horietan, ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetan sartzen diren establezimenduak joko dira hobariaren eraginpean dauden eta hobariaren onuradun diren jardueratzat:

671 taldea: Jatetxeetako zerbitzuak.

672 taldea: Kafetegiak.

673 taldea: Kafetegiak eta tabernak, janariarekin edo gabe.

674 taldea: Jatetxe, kafetegi eta kafe tabernako zerbitzu bereziak.

677.9 taldea: Jatetxe arloko berezko beste elikadura zerbitzu batzuk.

681 taldea: Hoteletan eta moteletan ostatu hartzea.

682 taldea: Hoteletan eta ostatuetan ostatu hartzea.

683 taldea: Fonda eta apopilo etxeetan ostatu hartzea.

755. taldea: Bidaia agentziak.

Bete beharreko betekizunak:

\* Arestian deskribatutako egoeraren batean (etetea, mugikortasuna mugatzea, taldekatzea mugatzea) agintari eskudunek emandako araudia aplikatzeak eragina izango du jarduera ekonomikoan, 2021eko ekitaldian, gutxienez 20 egunez.

\* Jarduera ekonomikoak alta emanda egon behar du Aguraingo udalerriko JEZe. Gainera, egoitza soziala eta lantokia Agurainen egon behar dira, eta zergak Araban ordaindu beharko dira.

\* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dira. Era berean, Aguraingo Udalaren zerga betebeharrak egunean izan beharko ditu.

Epea: hobaria 2021eko azaroaren 30era arte eskatu ahal izango da.

Aurkeztu beharreko agiriak:

\* Eskaera behar bezala beteta.

\* Zergak Araban ordaintzen dituela jasotzen duen zinpeko aitortpena.

\* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak

XEDAPEN GEHIGARRIA. - Atzerapenak eta zatikapenak.

COVID-19a dela eta, 2021eko ekitaldian, tasa horren ordainketa geroratzea eta/edo zatikatzea eskatu ahal izango da, borondatezko epearen barruan, berandutze interesak ordaintzeko eskakizunik gabe, baldin eta egoera ekonomiko-finantzarioak zergadunari aldi baterako eragozten badio ordainketa ezarritako epeetan egitea, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.

#### **ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAREN ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

XEDAPEN GEHIGARRIA. - Atzerapenak eta zatikapenak.

COVID-19a dela eta, 2021eko ekitaldian, tasa horren ordainketa geroratzea eta/edo zatikatzea eskatu ahal izango da, borondatezko epearen barruan, berandutze interesak ordaintzeko eskakizunik gabe, baldin eta egoera ekonomiko-finantzarioak zergadunari aldi baterako eragozten badio ordainketa ezarritako epeetan egitea, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.

A) EPIGRAFEA. ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIK ORDAINDU BEHARRERKOTASA

**ERANSKINA**

2021ko aparteko hobaria, COVID-19ren eragina arintzeko eta Aguraingo tokiko ekonomia sustatzeko.

Hobariaren zenbatekoa: zabor tasaren kuotaren % 70.

Hobaria aplikatzeko aldia: 2021eko ekitaldia.

Pertsona eta erakunde onuradunak:

COVID-19tik eratorritako osasun alarmako egoeraren ondorioz honako egoera hauetakoren baten eraginpean egon diren edo 2021eko ekitaldian egongo diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, mikroenpresak eta enpresa txikiak:

- \* Jarduera etetea.
- \* Mugikortasun murrizketak.
- \* Pertsona taldeek espazio publikoetan eta pribatuetan egoteko mugak.

Egoera horietan, ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetan sartzen diren establezimenduak joko dira hobarien eraginpean dauden eta hobarien onuradun diren jardueratzat:

671 taldea: Jatetxeetako zerbitzuak.

672 taldea: Kafetegiak.

673 taldea: Kafetegiak eta tabernak, janariarekin edo gabe.

674 taldea: Jatetxe, kafetegi eta kafe tabernako zerbitzu bereziak.

677.9 taldea: Jatetxe arloko berezko beste elikadura zerbitzu batzuk.

681 taldea: Hoteletan eta moteletan ostatu hartzea.

682 taldea: Hoteletan eta ostatuetan ostatu hartzea.

683 taldea: Fonda eta apopilo etxeetan ostatu hartzea.

755. taldea: Bidaia agentziak.

Bete beharreko betekizunak:

\* Arestian deskribatutako egoeraren batean (etetea, mugikortasuna mugatzea, taldekatzea mugatzea) agintari eskudunek emandako araudia aplikatzeak eragina izango du jarduera ekonomikoan, 2021eko ekitaldian, gutxienez 20 egunez.

\* Jarduera ekonomikoak alta emanda egon behar du Aguraingo udalerriko JEZe. Gainera, egoitza soziala eta lantokia Agurainen egon behar dira, eta zergak Araban ordaindu beharko dira.

\* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dira. Era berean, Aguraingo Udalaren zerga betebeharrak egunean izan beharko ditu.

Epea: hobaria 2021eko azaroaren 30era arte eskatu ahal izango da.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- \* Eskaera behar bezala beteta.
- \* Zergak Araban ordaintzen dituela jasotzen duen zinpeko aitortpena.
- \* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak

**OSTALARITZA ETA ANTZEKO ESTABLEZIMENDUETAKO TITULARREK TERRAZAK, MAHAI HANKABAKARREN MULTZOAK ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK INSTALATZEKO EGITEN DUTEN ERABILERA PUBLIKOKO ZORUAREN OKUPAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA****I. ERANSKINA**

2021eko aparteko hobaria, COVID-19ren eragina arintzeko eta Aguraingo tokiko ekonomia sustatzeko.

Hobariaren zenbatekoa: 2021eko ekitaldian aplikatu beharreko kuota zatiaren ehuneko 90.

Hobaria aplikatzeko aldia: 2021eko ekitaldia.

Pertsona eta erakunde onuradunak:

COVID-19tik eratorritako osasun alarmako egoeraren ondorioz honako egoera hauetakoren baten eraginpean egon diren edo 2021eko ekitaldian egongo diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, mikroenpresak eta enpresa txikiak:

- \* Jarduera etetea.
- \* Mugikortasun murrizketak.
- \* Pertsona taldeek espazio publikoetan eta pribatuetan egoteko mugak.

Egoera horietan, ekonomia jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetan sartzen diren establezimenduak joko dira hobarien eraginpean dauden eta hobarien onuradun diren jardueratzat:

671 taldea: Jatetxeetako zerbitzuak.

672 taldea: Kafetegiak.

673 taldea: Kafetegiak eta tabernak, janariarekin edo gabe.

674 taldea: Jatetxe, kafetegi eta kafe tabernako zerbitzu bereziak.

681 taldea: Hoteletan eta moteletan ostatu hartzea.

682 taldea: Hoteletan eta ostatuetan ostatu hartzea.

683 taldea: Fonda eta apopilo etxeetan ostatu hartzea.

Bete beharreko betekizunak:

\* Arestian deskribatutako egoeraren batean (etetea, mugikortasuna mugatzea, taldekatzea mugatzea) agintari eskudunek emandako araudia aplikatzeak eragina izango du jarduera ekonomikoan, 2021eko ekitaldian, gutxienez 20 egunez.

\* Jarduera ekonomikoak alta emanda egon behar du Aguraingo udalerriko JEZean. Gainera, egoitza soziala eta lantokia Agurainen egon behar dira, eta zergak Araban ordaindu beharko dira.

\* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dira. Era berean, Aguraingo Udalaren zerga betebeharrak egunean izan beharko ditu.

Epea: hobaria 2021eko azaroaren 30era arte eskatu ahal izango da.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- \* Eskaera behar bezala beteta.
- \* Zergak Araban ordaintzen dituela jasotzen duen zinpeko aitortpena.
- \* Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak

**ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAREN TASA EDO UDALAK EGITEN  
DUEN EGIAZTATZE JARDUERAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

11.2 COVID-19k eragindako osasun krisiaren ondoriozko egoera kontuan hartuta, eta Aguraingo tokiko ekonomiaren bultzada sustatzeko, 2021eko ekitaldian, ehuneko 90eko aparteko hobaria jasoko dute tasa honetan instalatzen diren establezimenduek, baldin eta horien azalera 0 eta 100 m<sup>2</sup> artekoa eta 100 eta 250 m<sup>2</sup> artekoa bada (ordenantza horren A) eta B) apartatuak). Horretarako eskaera egin beharko dute.

Eskabidea 2021eko ekitaldian egin beharko da.

**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN,  
JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN  
ORDENANTZAREN ETA TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO  
ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

— Atzerapenak eta zatikapenak.

COVID-19a dela eta, 2021eko ekitaldian, zerga horren ordainketa geroratzea eta/edo zatikatzea eskatu ahal izango da, borondatezko epearen barruan, berandutze interesak ordaintzeko eskakizunik gabe, baldin eta egoera ekonomiko-finantzarioak zergadunari aldi baterako eragozten badio ordainketa ezarritako epeetan egitea, betiere indarrean dagoen araudiaren arabera.